

## XIXILI

“Xixili, hartu astoa eta hoa Alzibarrera esnea eramatera”, esan zion amak. Ez zen lehendabiziko aldia izango hgura esneketari lanetara joango zenik Xixili. Behin baino gehiagotan joan izan zen amarekin, hari laguntzera.

Kilometro eta erdi eskas zeuden Irigorri baseritik Alzibarko plazara. Bide guztia maldan beheiti zihoan bidezidor lokaztu bat zen. Beheiti, beherakoan. Itzulerakoan, dena goiti zen. “Eskerrak marmidak hustuta egingo dudan buelta!” pentsatu zuen Xixilik.

-Habil lasai –esan zion amak abiatu aurretik, begi-klixka batekin. Horregatik. Epeleko Erramunarekin Alzibarren topatzen bazen erre kara zapaburuak harrapatzera ea joango ote ziren galdetzeko asmoa zuen Xixilik. Epeleko Erramuna artilea saltzera joan ohi zen Alzibarko plazara amarekin.

Alzibarko plazan beste auzoetako esneketariak, arrautz-saltzaileak eta baserritarrak elkartzen ziren, barazki, animalia eta bestelakoak saltzen. Ama haiekin tertulian lasai aritzen zen, goxo.

Beti bezala, esnea Maria eta Kontxitarenera eramateko esan zion amak alabari. Ba omen zeuden esne litroa gehiago ordaintzen zuten beste batzuk, baina hobe omen da segurutik ibiltzea. Zortea gehiegi tentatu gabe.

-Gaur esne ona eman ditene behiek. Apar askokoa... -esan zion abiatu aurretik amak Xixiliri. Izan ere, esnerik onena Donostiara eramateko erosten zuten Alzibarren. Esne ona, freskoa, garbia eta aparduna zen. Goizean edo iluntzean jaizten zena zen onena. Eguerdian, galtzeko aukera handiagoa izaten baitzuen. Iragorri, iluntzean esnea jaizten zutenean, leihora ateratzen zuten, biharamunera fresko-fresko heldu zedin. Egunean bertan jaitzia balitz bezala.

Lau behi zituzten Iragorriko ukuiluan. Kattalin, Nabarro, Moriko eta Galtzata. Azken hori bereziki maite zuen Xixilik, gerra garaian zaurituen gurdiak garraiatzeko eraman baitzuten, eta gero, bueltan baserrira ekarri. Herriko anbulantzia lanak egin zituen behia haien baserrikoa izateak halako poz bate maten zion Xixiliri.

-Gaur asteko esnea pagatuko ditene. Ongi jaso sosak –aholku eman zion amak Xixili ttikiari. Astean behin ordaintzen zuten Mariak eta Kontxitak. Garrantzitsua sentitu zen Xixili, gurasoak dirua zaintzeko ere fio zitzaizkiola ikusita.

Pozik abiatu zen Iragorritik beheiti, amak baserriko behien errapeetatik ateratako esnez betetako bi marmia handiek astoaren alde banatan balantza xamurra egiten zutela. Aita-amek altxa zituzten marmita astunak asto gainera. Urtutako elurra ematen zuen esne txuriak.

Erne ibili behar zuela pentsatu zuen, Astoarekin abiatu zenean. Asto hark Astoa zuen izena. Baina Xixilik *Asto gaixtoa* deitzen zion. Gainean eseri izan zitzaionetan, animaliak ez zuen onik izan Xixili bota arte. Eta oso ongi akordatzen zen negu hartan bertan Joxe neba eta Astoa hormetan irristatu ziren egunaz. Bi marmitetako esne guztia kamioan beheiti galdu zen. Egun hartan ez zuten Altzibarren esnerik saldu. Eta egun hotza zen hura ere. Ez zirudien hormatua zegoenik bidea, baina horma beltza, ikusten ez den hori, da guztietan gaiztoena.

Iragorritik Altzibarrerako bidea hartu zuenean, norbaitek XIXILI oihu egin zuela aditu zuen. Atzera begiratu zuen. Lekungaraitik bazetorren Anttoni, hura ere astoari tiraka, esne bete marmitekin.

- Ze ongi. Zapaburutara joateko hiru izango gara... -